



>justizia



## ***JUSTIZIAN arrazoi hauek ere baditugu grebara ateratzeko gainerako zerbitzu publikoekin batera.***

- Oraintxe lortu dugu Jaurlaritzarekiko ekiparazioa. Bertako langileek 2012an lortu zuten igoera.
- Justiziako langileoi **erosahalmena berreskuratzea** zor zaigu.
- Borroka **funtzionario guziona** da, elkarrekin gehiago lortuko dugu!
- Ezin dugu Jaurlaritzako langileek lortzen dituzten **hobekuntzetatik atzean gelditu.**
- Madrilek **jarritako mugak ukatzen ditugulako.** Jaurlaritzak nahi izan duenean aurrekontu mugu horiek gainditu izan ditu.
- Eusko Jaurlaritzara **transferitutako pertsonala garelako.**

**Urriaren 25ean eta abenduaren 19an GREBARA!**

**(\*) ...eta azaroaren 30ean, GREBA FEMINISTA OROKORRA!**

Euskal Herriko langile publikoak bi oztopo nagusirekin egiten dugu topo zerbitzu publikoen eredia zehaztean: lehena, Espainiako Estatuak **soldaten gehienezko igoerak** mugatzen ditu; bigarrena, **enplegua sortu eta egonkortzeko** mugak jartzeko ohitura hartu du Espainiako Gobernuak. Horrekin amaitu behar dela aldarrikatzeko unea heldu da.

EAJ, **eroso egoteaz gain**, bat dator murrizketa politika horiekin. Izan ere, gustura ezartzen ditu neurriak erantzukizuna kanpoan kokatuz.

Egoera horri gehitu behar zaio negoziazio kolektiboa ukatzen zaigula. Legez, administrazioek ez dute sindikatuok **adostasunik** behar, administrazioak soilik **“negoziatzera”** behartuta daude. Gauzak horrela, mahai negoziatzaileak itxurakeria eta makilaje ariketa soila bihurtu dira, aldebakarrez neurriak inposatu ahal izateko.

Unea heldu da **NAHIKOA DELA** esateko, eta EAEn sindikatuok **grebak deitu ditugu**. Egoera zuzendu ahal izateko ezinbestekoa izango da langile guztion borroka. EAJk zerbitzu publikoak eraitsi nahi dituenan dirua lortzen du, edota Madrilen birjartze tasak kentzea adosten du (bere polizia eredia babesteko, alegia). Baina EAJri ez zaio interesatzen zerbitzu publikoen garapenerako aurrekontu eta zerga politikak aldatzea. Negozioa da garatu nahi duena.

**Horregatik guztiagatik, honako hau exijitzen dugu:**

**Enplegua sortu eta egonkortu!**

- Egiturak adostu, ezkutukoa azalera eta denak egonkortu
- Gazteberritze planak, erreleboak, primak...
- Prekariateterik ez: kontratu partzialekin amaitu
- Lan osasuna bermatu, eta sistema publikotik. Mutualitaterik ez!

**Publikoa indartu!**

- Zaintza zerbitzuak, publikoak!
- Ratio duinak adostu
- Pribatizatorik ez; publikazio planak negoziatu

**Erosahalmena berreskuratu!**

- Soldatetatik kendu diguten %20a berreskuratzeko plana. Bide horretan, 2024rako %10eko igoera lortu.

**Zerbitzuak eta lana euskaraz. Injerentziarik ez, eta planak adostu!**

**Neurri feministak! (\*)**

- Berdintasun planak eta indarkeria matxistari aurre egiteko protokolo eraginkorrak
- Bizitza eta enplegua uztartzeko kontziliazio neurriak eta baimen ordainduak

**Negoiazio Kolektiboaren eskubidea bermatu; inposiziorik ez!**

**Urriaren 25ean eta abenduaren 19an GREBARA!**

**(\*) ...eta azaroaren 30ean, GREBA FEMINISTA OROKORRA!**